# TALDEAK ERATZEKO IRIZPIDEAK

## 1. Jokalariak taldeko

Taldeak sortzeko gutxieneko eta gehienezko irizpideak ondokoak, dira, baina egoeraren arabera federazioek zehaztutako irizpideak ere kontuan hartu ahal izango dira:

<table>
<tr><th></th><th>Fútbol</th><th>Baloncesto</th><th>Tenis</th><th>Esku pilota</th><th>Atletismo</th><th>Urpolo</th><th>Natación</th><th>Boleibo l</th><th>Hockey patinaje</th><th>Ajedrez</th><th>Judoa</th><th>Eskubaloia</th></tr>
<tr><td>LH3</td><td>8-12</td><td rowspan="6">10-15</td><td rowspan="4">6-14</td><td rowspan="4">6-12</td><td rowspan="4">8-16</td><td rowspan="4">8-15</td><td rowspan="10">8-30</td><td></td><td>6-15</td><td>10</td><td></td><td rowspan="2">8-12</td></tr>
<tr><td>LH4</td><td rowspan="3">9-14</td><td></td><td>6-15</td><td>10</td><td></td></tr>
<tr><td>LH5</td><td rowspan="2">8-12</td><td>6-15</td><td>10</td><td></td><td rowspan="2">8-12</td></tr>
<tr><td>LH6</td><td>6-15</td><td>10</td><td></td></tr>
<tr><td>DBH1</td><td rowspan="2">Fútbol 11. Equipos “A”:18–22<br>Fútbol 11. Equipos “B”:18-24</td><td></td><td></td><td></td><td rowspan="6">8-16</td><td rowspan="2">8-14</td><td>6-12</td><td></td><td rowspan="2">10</td><td rowspan="2">10-14</td></tr>
<tr><td>DBH2</td><td></td><td></td><td></td><td>6-12</td><td></td></tr>
<tr><td>DBH3</td><td rowspan="4">Fútbol 11. Equipos “A”:18–22<br>Fútbol 11. Equipos “B”:18-24</td><td rowspan="4">10-15<br>Especiales:<br>10-12</td><td></td><td></td><td></td><td rowspan="2">8-14</td><td>6-12</td><td></td><td rowspan="4">10</td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td>DBH4</td><td></td><td></td><td></td><td>6-12</td><td></td></tr>
<tr><td>BATX1</td><td></td><td></td><td></td><td rowspan="2">8-14</td><td></td><td></td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td>BATX2</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

## 2. Taldeen osaketa (lehiaketa ibilbidea aukeratu dutenek)

- LH 3.mailan:
  - Sortuko diren taldeak, Ikastolako 3.mailako ikasgela taldeketa berriaren arabera egingo dira.
  - Parte-hartzaileen artean neba-arrebek talde berdinetan jokatuko dute.
  - Jokalari kopurua orekatzen saiatuko gara aurrekoak kontuan eduki eta gero. Taldeak ez badira berez orekatuak, gurasoen eskariak kontuan hartuz orekatzen saiatuko gara eta azkenik kirol koordinatzaileen erabakia izango da.
  - Irailean publikatuko dira taldeak ohiko medioen bitartez (Alexia).
- LH 4. mailan, LH 3. mailako taldeak mantenduko dira ez badago jokalari kopuru aldaketarik. Horrela balitz, zehaztutako prozesuari jarraituko zaio. Taldeketak uztailean publikatuko dira ohiko medioen bitartez: Alexia.

- LH 5. mailan saskibaloian, futbolean eta urpolon, taldeak berregingo ditugu eta maila desberdineko jokalariak elkartu ahal izango dira.
  - <u>LH 5-6.mailako taldeak saskibaloian eta futbolean</u>: Bizkaiko Foru Aldundiak zehazten dituen ibilbideak jarraituz eta Lauro Ikastolak zehaztutako irizpideekin osotuko dira errendimendu talde bat sortuz eta beste jokalari guztiekin talde orekatuak egingo dira beherago azaltzen den puntuazio sistemari jarraituz:
    - Taldeak berregiteko irizpideak:
      - Jarrera (%20): iazko entrenatzaileak
      - Asistentzia (%15): iazko entrenatzaileak
      - Arlo akademiko pedagogikoa (%20): Ikastolak
      - Proiekzioa kirol horretan (%45): entrenatzaileak eta koordinatzaileak

      (Jokalari berrien kasuan jarrera eta asistentzian bataz-besteko puntuazio bat jarriko zaie eta kirol proiekziorako froga egingo zaie).
  - Taldeketak uztailean publikatuko dira ohiko medioen bitartez: Alexia.

- LH 5. eta 6. mailan sortutako taldeak ikasturtero berrikusiko dira aurreko irizpideen arabera, eta altak eta bajak izan daitezke. Honetarako, Lauro Ikastolari aurkeztuko zaizkio, aldaketen arrazoiekin batera, taldeketa berrien oniritzirako. Denboraldian zehar, beharrizanen arabera, jokalariei goiko taldeetan entrenatu edota jokatzea eskatu ahal izango zaie, talderen bat osotu edo indartu behar denean. Beste taldeetan parte hartuko duten jokalari kopurua eta jolastuko duten denboraren kudeaketak koordinatzailearen gainbegiraketa izango du.

- Gazteen mailan, Ikastolako ikasle ohiek jolasteko aukera izango dute, Ikastolako ikasleek okupatzen dituzten plazak osotu eta gero plaza libreak baldin badaude. Ikasle ohiak, Lauron 2. Batxilerra bukatu duten ikasleak izango dira.

- Ahal den heinean maila bereko taldeen jokalari kopurua orekatuko da, nahiz eta ibilbide desberdinetakoak izan.

- Ekainean egindako taldeen osaketa ez da behin-betikoa izango.

  Taldeak sortu eta gero inzidentziarik badago, jokalari kopurua desorekatzen delako, inzidentzia duen taldeko familiak informatuko dira, beste kategoriako taldeak gai horretaz informatuko dira eta hauen seme-alabei taldez aldatzeko boluntario agertzen diren eskatuko zaie. Boluntariorik egon ezean:
    - Federazioak ahalbidetzen badu, dauden jokalariekin aurrera egingo da.
    - Ezinezkoa bada berez edo araudiagatik, talde horretako jokalariak beste taldeetan banatuko dira taldeen maximoak ez badira gainditzen edo taldeak berrantolatu ahal izango lirateke.
    - Epez kanpo egoteagatik aurreko aukerak posible ez badira, taldea desegingo da eta jokalariei beste kirol bat eskainiko zaie.
- Ekintzaren batean plaza erabilgarriak baino eskaera gehiago jasotzen badira, honako irizpide hauei jarraituko zaie taldeak osatzeko:
    - Epe barruan egin diren inskripzioei lehentasuna ematea.
    - Lehentasuna ematea aurreko ikasturtean jarduera egin duten ikasleen inskripzioei, progresio lineala bermatzeko. Salbuespenak:
        - Sukaldaritza
        - Formulauro
        - Esperimentazioa
        - First Lego League
        - Musical Theatre in English
    - Aurreko puntuan salbuespen gisa aipatutako jardueretan, aurretik jarduera hori egin ez dutenei emango zaie lehentasuna.
    - Jarduera horretan soilik matrikulatutako ikasleak lehenestea
    - Hala ere, plazak baino eskaera gehiago egongo balira, puntu honetan geratzen direnen artean zozketa egingo litzateke.

**Gehienezko talde kopuruak, kiroleka eta mailaka:**

<table>
<tr><th></th><th>Futbola</th><th>Saski</th><th>Tenisa</th><th>Esku pilota</th><th>Atletismoa</th><th>Urpolo</th><th>Igeriketa</th><th>Boleibola</th><th>Hockey patinaia</th><th>Xakea</th><th>Defentsa pertsonala</th><th>Eskubaloia</th></tr>
<tr><td>LH3</td><td>3</td><td>2</td><td rowspan="4">2</td><td rowspan="4">1</td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">3</td><td rowspan="2"></td><td>-</td><td rowspan="2">1</td><td>1</td><td></td><td rowspan="2">1</td></tr>
<tr><td>LH4</td><td>2</td><td>2</td><td>-</td><td>1</td><td></td></tr>
<tr><td>LH5</td><td>3</td><td>2</td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">3</td><td rowspan="2"></td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">1</td><td>1</td><td></td><td rowspan="2">1</td></tr>
<tr><td>LH6</td><td>3</td><td>2</td><td>1</td><td></td></tr>
<tr><td>DBH1</td><td rowspan="2">Futbol 11: 4</td><td>2</td><td></td><td></td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">3</td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">1</td><td></td><td></td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">1</td></tr>
<tr><td>DBH2</td><td>2</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>DBH3</td><td rowspan="2">Futbol 11: 2</td><td rowspan="2">2</td><td></td><td></td><td></td><td rowspan="2">2</td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">1</td><td></td><td></td><td rowspan="4">1</td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td>DBH4</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>BATX1</td><td rowspan="2">Futbol 11: 2</td><td rowspan="2">2</td><td></td><td></td><td></td><td rowspan="2">2</td><td rowspan="2">1</td><td rowspan="2">1</td><td></td><td></td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td>BATX2</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>GUZTIRA</td><td>30</td><td>17</td><td>2</td><td>1</td><td>3</td><td>12</td><td>3</td><td>4</td><td>2</td><td>4</td><td>2</td><td>3</td></tr>
</table>